

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Osasun Departamentuak beren jarduerarekin jarraitu nahi duten erretiratutako profesionalekin lankidetzabideak ezarri ditu

*Irakaskuntza eta ikerketako jardueretan beren esperientzia baliatuz, Nafarroako osasun-sistema publikoa hobetzen lagunduko dute*

Martes, 09 de junio de 2015

Osasun Departamentuak foru-agindu bat argitaratu du ([51/2015 FA, apirilaren 23koa](#)), eta bertan erretiratutako osasun-profesionalekin lankidetzarako formulak finkatzen dira; Nafarroako osasun-sistema publikoaren mesedetan irakaskuntza eta ikerketako jarduera-maila bati eutsi nahi dioten profesionalak dira.

Beharrezko mekanismoak jarri nahi dira profesional horien esperientzia eta ezagutzak erabiltzeko behin erretiratzen direnean, eta aholkularitza, laguntza, prestakuntza edo ikerketari emandako laguntzako funtzioak betetzen jarrai nahi dutenak. Gaur egun, era honetako jarduerak araudiaren babesik gabe egiten ziren, eta egoera horrek zenbait zailtasun aurkezten zituen sor zitezkeen ordainsarien gainean edo ikerketari laguntzeko deialdietan parte hartzeko orduan.

Testuan, Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun-langile erretiratuek zer esparrutan parte hartu ahalko duten zerrendatzen da, eta egin ahalko dituzten jarduerak; haien artean nabarmendu behar dira: mintegietan irakasle modura parte hartzea; aktibo dauden langileak prestatzeko ikastaro edo hitzaldiak; ikerketa proiektuetan zuzenean parte hartzea edota haiek zuzentzea; dibulgaziozko artikulak landu eta berrikustea; langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzea; osasun-plan edo -programen prestakuntzan laguntzea, kalitatezko edo kudeaketakoetan laguntzea; ekitaldi, jardunaldi edo kongresuen antolakuntzan laguntzea; zerbitzuen funtzionamendu eta hobekuntzako txosten teknikoak egitea; saio klinikoetan parte hartzea edota zuzeneko aholkularitza kliniko ematea beren espezialitateko profesionalei kasu klinikoak elkarrekin berrikusiz, beste jarduera batzuen artean.

Horretarako, eskuratu ahalko dute: Nafarroako Gobernuko osasun-intraneten dagoen beren interes-eremuko osasun-informazioa; Osasunbideko liburutegi birtualeko funts bibliografikoak (datuak babesteko arloko araudia errespetatuz); ikerketarako laguntza publikoen deialdiak eta eskatutako laguntza teknikoak aktibo dagoen langileen baldintza berberetan.

Foru-aginduak, halaber, jasotzen du funtzio horietatik sortutako konpentsazio ekonomikoak Departamentuko langileentzat agintzen diren zenbateko nahiz irizpide berekoak izango direla. Bestalde, hautaketa-epaimahaietan parte hartzea dagokion araudian ezarritakoari egokituko

zaio, eta txosten teknikoak egitea, berriz, kontratu publikoen araudiari.